

**\_INGURATU\_| IN| || INGURA ||\_ |\_GURA | IN GURA \_||**

**INGURATU - EGIN - DISPOSIZIOA - DESIOA - IN GURA**

## \_INGURATU\_

Agurain, 2023ko uztailaren 4a, asteartea. Duela hamarkada batzuk kale horietan sortutako punk-rock bibrazio-mugimendu hartatik zerbait suma daiteke. Mugimendu horrek hainbat talderen sorrera eragin zuen, besteak beste, Gatillazo, Kaos Etiliko eta La Polla Records. Gorputzen performatibitateak espazio publikoan duen esku-hartzeko ahalmenaren esplorazio eta hastapeneko mugimendu hark, hilabete honetan Estéfana Románen (Vigo, 2000), Amaiur Zuazuaren (Abadiño, 2002) eta JKren (Gasteiz, 1994) *IN GURA* erakusketarako sarrera dagoen kale bera betetzen zuen.

Punk-rocka eta praktika artistiko garaikidea, nerbio-sistema berean lot daitezkeen bi unibertso urrun izan litezke; lehena, kode sozialen mugak norberaren gorputzasunaren bidez hausten dituen; bigarrena, berriz, konbentzio bisualei eusten diena, bestelako gorputz batzuk entzutea oinarri duen konpromezuzko ariketa ez-hegemonikoaren bidez. *INGURATU*.



## IN, egin|

**Ibon Landak** (Gasteiz, 1994), erakusketaren bitartekariak, Lautadako zenbait gune ezagutzera eraman zituen artistak erakusketa muntatzen hasi aurretik. Aretora iritsi bezain laster, beren piezak atera eta hiru artistek zuten guztia bateratu zuten. Muntaiaren metodologia modu organikoan sortu zen. Kidetasunagatik, artista bakoitza espazio batean edo bestean kokatu zen. Ordu batzuez, aterpetuta egiten zuten lan, solairutan banatuta. Ondoren, komisarioak eta artistek, erakusgela bisitatzeko elkartzen ziren ordura arte egindako lanak itzultzen ziren hori jasotzeko asmoz: piezen arteko bateratzeak; argiaren intentsitate eta kolore aldaketak, zeinetatik argia igarotzen baitzen; eta lanen eta espazioaren arteko artikulazioa.

Orain, turismo-bulegoa eta erakusketa-aretoa, Zabalarte polizia-kuartel zahar baten gainean egin da. Eraikin horrek zur iluneko habeak eta leihoak mantentzen ditu, baita lau pisuetan gora igotzen den etxeko usain hori ere. Leihoetatik udako argia sartzen da, tarteka bazter batzuk betetzen dituen. Kristalezko igogailu batek lau solairuak zeharkatzen ditu.

Nire lehen bisitan, aretoko airearen dentsitatea sentitu nezakeen. Egun batzuk lehenago intentsiboki bizitako leku batean egotearen seinale. Erakusketa espazio honek eskatu zuen muntaketa-lan nekeza arnas zitekeen. Erronka ez zen aretoko elementuak ezkutatzea izan, baizik eta elementu horiekin elkar bizitzen asmatu. Beste materia batzuekin, beste elementu batzuekin, beste ehundura batzuekin eta gorputzeko beste tenperatura batzuekin. *Gauzen* beste barne-logika bat, beste denbora eta jokamolde batzuekin elkarrizketan aritzeko konpromezu itsuan. *IN, egin*.



## || INGURA, disposizioa ||\_

Zabalarateko espazio-antolaketaren konplexutasunak traba egin diezaioke figura hondo neutroarekin erakusteko tentazioa duenari; nahiz eta giza gustuak egituraketa horretarako joera izan lezakeen inertziak. Hondo horretako elementu bakoitzak bestean eragiten du, eta irudi bakoitzak gainerako espazioan hartzen du parte. Badirudi artistek obra bukatueneren ikuspegia baztertu dutela aretoa norabide askotan betetzeko. Espazioa ezagutzen joan dira, bat-bateko piezak *insitu* sortzen zituzten bitartean. Horietako batzuk espazioaren zirrikitueta arakatu daitezke, erakusketa-aretoaren eta eraikinaren arkitekturaren arteko muga-zuloak hartzen baitituzte: eskultura-ariketa txikiak, prozesuaren materialak, momentuko keinuak edo beste pieza batzuetatik berreskuratutako materialak. *INGURA, disposizioa.*



## |\_GURA, desioa

**Estéfana Romanek** tailerrean garatzen ditu bere prozesuak, “utzi duzun lekuan” lanean jarraitzeko aukera ematen dizun espazioa baita. Haren ikuspegi artistikoa pinturaren eta eskulturaren arteko elkargunean dago. Bi diziplinak txandakatzen ditu; hirudimentsiokotasuna bilatzen du kolorearen eta tamaina handiko piezetan trazuak hautemateko bideragarritasunaren bidez. Bere bilaketan, eskulturan, marrazteko orduan kontuan hartu behar diren elementuak hautematen ditu.

Bere piezetan mugimendu baten abiadura edo eskulturaren gune bat lausotuta edo erdi bukatuta uzteko estrategia aurki daiteke, arreta beste puntu batean ardazteko. Irudi baten bidez bezala, material baten bidez ikusi ahal izatea eta kolorea materia gisa lantzea oso garrantzitsua da berarentzat. Zuri bat bestetik bereizten duten tonalitate minimoekin obsesioa du, eta, piezak amaitzeko, kolore biziagoko oihal batekin aktibatzen ditu. Esaterako, gorria.

Bere lanei oihalak, bolatxoak, beste pieza batzuen hondarrak, txirikordak, alanbre-haria, plastikoa eta hortik sortzen diren lerroak eta konposizioak lotzen dizkie. Biak, pintura eta eskultura, modu berean ematen dira, eta bata bestearengandik ikasitakoa egiteko moduak aurki ditzake.



**Amaiur Zuazua** ia beti bideotik hasten da lanean. Bere burua grabatzen du margotzen edo paseatzen ari denean. Horrek interesatzen zaion guztia biltzen laguntzen dio, baita grabatutakoaren eta grabazio-euskarriaren arteko lotura, erregistratzeko modu jakin bat zehazten duena, hautematen ere. Normalean, amonaren etxe inguruan grabatzen du: paseoz paseo.


Bere marrazkietan, etxe horren egitura da abiapuntu: lurretik lau metrora dagoen terraza bat, baldosak, eskailerak. Liluratuta dago etxea antolatzen duten elementuekin... *Let me do it for me*, eskatzen du. Ez zaio inoiz gustatu itxarotea, ez txikitan jolasten zuenean, ezta orain ere. Bere oldarkortasuna azkar egiteko eta berrartzeko modu gisa besarkatzen du. Nahiago ditu ariketa laburrak; laburrak bezain zintzoak.

Amaiurrek Zabalarteko laugarren solairu horretan kokatu du egun batzuez, muntatzeko behar zuen denbora. Solairu horretan, aldi baterako erabiltzen ez diren monitoreak, mahaiak, aulkiak, gabonetako zuhaitza... maindire eta plastiko azpian gordeta daude. Etxeko gela bat, denborak aurrera egin ahala desagertzen diren oroitzapenen agerpenaz eta desagerpenaz hitz egiten duena. Bideo, objektu eta marrazkien bidez, haiek berreskuratzen jolasten da, Zabalarteko laugarren solairu horretan, eraikinaren goiko aldean duen atsedenekuan, aire gehien eta grabitate gutxien dagoen lekuan.



**JK** Gasteizen bizi da eta ezagutzen dutenek berezko *tempoa* izatea aitortzen diote. Kontenplaziozko denborazkotasuna, entzuteko denbora, asimilazio-denbora eta lan-denbora luzekoa. Haren berezko erritmoa zeinekin onartu eta baztertzen dituen zirkuitu produktiboetako kode sinbolikoak. Izaera lasai eta behatzaile batek inguratzen du, eta margotzen duenean, horretan hasia erabakitzen duelako da. Margotzen hasi aurretik, etxea txukuntzen eta garbitzen du. Estudio itxura duen testuinguru batean egiten du lan, aurreikusita eta zehaztuta dago noiz egingo duen lan. Magia koadroan gerta dadila.

Bere koadroak gutxinaka antolatzen doaz. Figurazioa mihise batean dagoen pintura-orban abstraktu batetik abiatuta agertzen da. Prozesuan orban hori zer den, zer nahi duen jakin nahian ibiltzen da. Etxean du estudioa. Pintzel bat, asto bat eta pintura-pote bat ditu. Zoriaren ondorioz beste pigmenturen bat lortzen badu, pote horri gehitzen dio; beraz, potearen eta bere pinturen tonalitatea etengabeko metamorfosian dago. Beste egun batean, gauza bera egin dezake bere bidean gurutzatzen den lur zati batekin edo beste edozein materiarekin. Kolorea potearen barruan aldatzen da, eta bere koadroak monokromoak diren arren, gama aldaketa bat ikus daiteke. *GURA*, desioa.



## | IN GURA \_||

Obra batzuk, handiak eta zalantzakorrak; beste batzuk, solemneak eta alaiak. Baina horietako batek ere ez dirudi egileari kapsulatuta dagoenik, nahita bultzatu baitute haien izenak karteletan ez agertzea. Hauek arte prozesuen jakintza igaro dute, honek ez baitu gizakiaren salbuespeneko gaitasunarekin zerikusirik. Ez da gure gogamenean soilik gertatzen den zerbait, baizik eta kanpoan dagoenarekin, gorputzarekin, *gauzarekin* elkarreraginean sortzen dela.

Hala lantzen da norberak amore emateko gaitasuna eta agerpen materikoen arteko elkarrekintzei eragiten uzteko ahalmena. Hala estutzen da norberaren gorputzaren eta ondoko gorputz-ingurunearen arteko lotura: argia, beroa, dentsitatea eta usaina, eta orain egurraren usaina ez ezik, olio, plastiko eta kola usaina ere, areto osoko airea polinizatuz.

*INGURATU, IN, INGURA, GURA, IN GURA*. Artea inguratuz eta harengatik inguratuak izanik. Gorputzik gabeko aurrerapenaren ideia baztertuz. Eraginkorra ez denaren, disposizio porotsuen, sortzeko desioaren, keinu kokatuen eta inguratze mugimenduak gurutzatzen diren erakusgela izanik. Egunerokotasunean elkarreragiten duten izaki bizidun eta bizigabeen sare horren parte zarela ahaztuko balitzaigu; “por si se te olvida-que-perteneces a ella” (*Kaos Etiliko*, 1998, Agurain).